

**ATZERRIKO HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZARAKO  
METODOLOGIA ETA ESTRATEGIA BERRIAK**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

Egilea: Ormaetxea Urreta, Anne

Zuzendaria: Arruti Echeverria, Nerea

**2020-2021**

## **AURKIBIDEA**

### **1. JUSTIFIKAZIOA**

### **2. MARKO TEORIKOA**

#### **2.1. Linguistically and Culturally Responsive Teaching**

##### **2.1.1. Hezitzailearen eginkizuna**

#### **2.2 Translanguaging**

#### **2.3 Total Physical Response (TPR)**

##### **2.3.1. Total Physical Response Storytelling (TPRS)**

### **3. PROPOSAMEN PRAKTIKOA TEORIAN OINARRITUTA**

#### **3.1 Curriculumarekin lotura**

##### **3.1.1 Oinarrizko kompetentziak**

##### **3.1.2 Esperientzia eremuak**

##### **3.1.3 Helburu didaktikoak**

##### **3.1.4 Edukiak**

##### **3.1.5 Ebaluazio irizpideak**

##### **3.1.6 Lorpen adierazleak**

#### **3.2 Metodologia**

#### **3.3 Praktikaren deskribapena**

##### **3.3.1. Lehenengo ipuina: “Four Little Corners”**

##### **3.3.2. Bigarren ipuina: “I’m So Brave”**

##### **3.3.3. Hirugarren ipuina: “Ten, Nine, Eight...”**

##### **3.3.4. Laugarren ipuina: “The Skin You Live In”**

##### **3.3.5. Praktiken laburpena**

##### **3.3.6. Aurreikusitako praktiken ondorioak**

### **4. ONDORIOAK**

### **5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK**

### **6. ERANSKINAK**

#### **6.1. Piktogramak**

#### **6.2. Abestiak**

## **LABURPENA**

Lan honetan zehar, atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza Haur Hezkuntzan sustatzearen garrantziari buruz eta etapa honetan erabili daitezken metodologia eta estrategia berri eta eraginkorrei buruz hitz egin eta ikertuko da. Ingelesaren ikaskuntza-irakaskuntza, Linguistically and Culturally Responsive Teaching metodologia kontuan hartuz, kulturalki harkorra izatea lortu nahi da, honekin lotura duen Translanguaging metodologiari esker hurrek bere ama hizkuntzarekin zubiak eraikitzea sustatuz eta hau guztia Total Physical Response Storytelling metodologia erabiliz aurrera eramatea lortu nahi da. Helburu hau aurrera eraman ahal izateko, esku-hartze praktikoko baten bidez islatuko da, non kulturalki harkorrak diren lau ipuin ezberdin proposatuko dira, hauek piktograma ezberdinen bidez kontatuko dira eta gorputz-hizkuntzaren bidez dramatizatuko dira. Modu horretan, ikasle guztien inklusioa sustatuz eta ingelesa haurrentzako naturala den modu batean landuz, haurraren ulermena eta ahozkotatua suspertzeko.

**HITZ GAKOAK:** Inklusioa, metodologia berriak, Translanguaging, Linguistically and Culturally Responsive Teaching, kulturalki harkorra, ama hizkuntza, Total Physical Response Storytelling, komunikazioa, dramatizazioa, piktogramak.

## **ABSTRACT**

In the development of this paper, the importance of promoting the teaching of foreign languages in Early Childhood Education and the new and effective methodologies and strategies that can be used at this stage will be discussed and investigated. The teaching of the English language, taking into account the Linguistically and Culturally Responsive Teaching methodology, is intended to be culturally responsive, due to the Translanguaging methodology related to it, children can build bridges with their mother language and all this will be prosecuted by using the Total Physical Response Storytelling methodology. In order to achieve this objective, it will take the form of a practical intervention in which four different culturally responsive stories will be proposed, which will be told by using different pictograms and dramatized through body language. Promoting the inclusion of all students and working with English in a natural way for children, encouraging comprehension and speaking.

**KEY WORDS:** Inclusion, new methodologies, Translanguaging, Linguistically and Culturally Responsive Teaching, culturally responsive, mother tongue, Total Physical Response Storytelling, communication, dramatization, pictograms.

## **RESUMEN**

En el desarrollo del presente trabajo, se hablará e investigará sobre la importancia de promover la enseñanza de la lengua extranjera en la Educación Infantil y sobre las nuevas y eficaces metodologías y estrategias que se pueden utilizar en esta etapa. La enseñanza de la lengua inglesa, teniendo en cuenta la metodología Linguistically and Culturally Responsive Teaching, se pretende que

sea culturalmente receptiva, gracias a la metodología Translanguaging relacionada con ella, que los niños y niñas construyan puentes con su lengua materna y todo ello utilizando la metodología Total Physical Response Storytelling. Para llevar a cabo este objetivo, se plasmará en una intervención práctica en la que se propondrán cuatro cuentos los cuales son diversos culturalmente, que se contarán a través de diferentes pictogramas y se dramatizarán a través del lenguaje corporal. De esta manera, fomentando la inclusión de todos los alumnos y trabajando el inglés de una manera natural para los niños y niñas, fomentando la comprensión y la oralidad.

**PALABRAS CLAVE:** Inclusión, nuevas metodologías, Translanguaging, Linguistically and Culturally Responsive Teaching, culturalmente receptivo, lengua materna, Total Physical Response Storytelling, comunicación, dramatización, pictogramas.

## 1. JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, herrialdeen arteko harremana eta konexioa sortzea errazagoa da, izan ere, Internetek lurreko edozein lekurekin zuzeneko konexioa izateko aukera ematen digu, hala ere, ekonomikoki, politikoki eta baita gizarte- eta kultura-mailan ere konektatuak bizi gara. Azken urte hauetan bizi izan dugun prozesu honi globalizazioa deritzo.

Bizi garen mundu globalizatuan, herrialdeetan eta bereziki eskoletan ematen den kultura-aniztasuna gero eta ohikoagoa da. Hori dela eta, ikasgelan kulturalki harkorra den pedagogia bat lantzea beharrezkoa da. Honek ez du esan nahi soilik kultura aniztetako ospakizunak edo ohiturak lantzea, baizik eta hezitzaileek ikasleen ikaskuntza kalitatea hobetu dezaketela, bere kulturalen ezagutza eskuratuz eta ezagutza hori irakaskuntza-praktika bihurtuz.

Horretaz gain, bigarren hizkuntza bat ezagutzea funtsezkoa da, bereziki ingelesa, gaur egun kultura arteko zubi-hizkuntza nagusia baita. Beraz, garrantzitsua da, eskoletan, hurrei, gaur egungo gizartean bere burua behar bezala adierazteko estrategiak, metodoak eta materialak eskaintzea. Horrela, lan-, kultura- eta gizarte-munduan askoz aukera gehiago irekiko dizkieten ezagutzak eskuratuz.

Atzerriko hizkuntza Haur Hezkuntzan lantzeari dagokionez, adin goiztiarretan bigarren hizkuntza bat sartzen dugunean, helburua ikaslea hizkuntza berri hori, bere ama hizkuntza balitz bezala ikastea da, izan ere, adin horietan gizakiak neurona gehien dituen momentua denez, erraztasun handiagoa izango du hizkuntza berria bereganatzeko. Beraz, haur batek hizkuntza berri bat ikasterakoan, modu naturalean ikasten du, hizkuntzaren egitura eta arauak inkontzienteki barneratuz, eta hori da, hain zuzen ere, hizkuntza bat haur izanda eta heldu izanda ikastearen arteko aldea, helduek, kontzeptu bakoitza, modu logikoan ulertu behar dutela eta hurrek aldiz, ez.

Gaur egun, hezkuntzan, atzerriko hizkuntza irakastean, ez da kontuan hartzen hurrek modu naturalean ikasteko duten gaitasun hori eta helduekin erabili daitezkeen metodologia berdinak planteatzen eta erabiltzen dira. Hori dela eta, lan honetan, Haur Hezkuntzan atzerriko hizkuntza bat gelan sartzearen eta ikastearen alderdi positiboak aztertuko ditut. Eta ikaskuntza eraginkorra izan dadin aplikatu daitezkeen estrategia eta metodologia berriak ikertuko ditut, hala nola, Linguistically and Culturally Responsive Teaching, Translanguaging eta Total Physical Response Storytelling.



Ikertutako teknika, material eta metodologiak kontuan hartuz, haurrek atzerriko hizkuntza era naturalean, hau da, bere egunerokotasunean ematen diren ekintzekin lotura eginez, kulturalki aberatsak diren hainbat praktika proposatzea aukera egokia dela pentsatzen dut.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Linguistically and culturally responsive teaching

Gaur egun, ikasgelatan, geroz eta handiagoa da jatorri ezberdinetako ikasleen kopurua; beraz, ahalegin handiagoa egiten da irakasteko metodo eraginkorrak identifikatzeko, eta kulturalki harkorrak diren ikuspegi pedagogikoen erabileraren beharra areagotzen da. Hau da, gaur egungo ikasgeletan, irakasleek hainbat kultura, hizkuntza, gaitasun eta bestelako ezaugarri dituzten ikasleak hezi behar dituzte (Gollnick eta Chinn, 2002). Erronka honi aurre egiteko, hezitzaileek, teorikoki informazio ugari izateaz eta eskuratzeaz gain, kulturalki harkorra den pedagogia erabili behar dute. Ikastetxeak, hezitzaileekin batera, ikasgelako kultura bat sortu behar du, ikasle guztien kultura- eta hizkuntza-jatorria kontuan hartuz, harrera egokia eta ikasteko aukera eta giro paregabea izan dezaten. Hau da, ikasleen arrakasta areagotzeko, ezinbestekoa da ikasleei laguntzea etxeko eta eskolaren arteko etena gainditzeko (Allen eta Boykin, 1992). Beraz, kulturalki harkorra den ikasgela batean, irakaskuntza eta ikaskuntza eraginkorrak, kulturari eta ikasleari bideratua dagoen testuinguru batean gertatzen dira; testuinguru horretan, ikasleek egiten dituzten ekarpenak eta plazaratzen dituzten interesak, haien errendimendua sustatzeko, identifikatzeko eta elikatzeke erabiltzen dira (Richards, Brown eta Forde, 2007).

Richards, Brown eta Forde autoreen arabera, kulturalki harkorra den pedagogiak hiru dimentsio ditu: instituzionala, pertsonala eta hezigarria. Alde batetik, dimentsio instituzionalak, administrazioa eta haren politika eta balioak islatzen ditu (Dutta eta Sahey, 2016). Bestalde, dimentsio pertsonalak, irakasleek kulturalki hartzaile izateko gauzatu behar dituzten prozesu kognitibo eta emozionalei dagokie (Amprako, 2017; Zhang-Wu, 2017). Azkenik, dimentsio hezigarriak, irakaskuntzaren oinarria osatzen duten materialak, estrategiak eta jarduerak biltzen ditu (Richards, 2007).

Dimentsio instituzionala: Eskolen egitura fisikoa eta politikoa ematen duen erakundea da. Erakundea kulturarekiko adeitsuagoa izan dadin, gutxienez hiru arloetan erreformak egin behar dira (Savvides eta Pashiardis, 2016). Lehenik eskolaren antolaketan, honek barne hartzen ditu egitura administratiboa eta aniztasunarekin erlazionatzeko modua, eta espazioaren erabilera eta gelen antolamenduan. Bigarrenik, eskolako politikak eta prozedurak, hau da, hainbat jatorritako ikasleei zerbitzuak emateko orduan eragina duten politika eta prozedurak eta azkenik, komunitatearen parte-hartzea, non familiek eta komunitateek eskolan parte hartzeko moduak bilatzen dira (Halaski, 2018; Khalifa, 2016).

Dimentsio pertsonala: Hezitzaileak kulturalki harkorra izan daitezen, bere buruari buruzko gogoeta egitea, dimentsio pertsonalaren alor garrantzitsua da. Bere buruari eta besteei buruz dituzten jarrerak eta sinesmenak aztertuz, hezitzaileak bere nortasuna ezagutzen hasten dira, horrela bere balio-sisteman eragina izan duten aurreiritziei aurre egin diezaiekete (Villegas eta Lucas, 2002). Kasu batzuetan, hezitzaileek ez dute onartzen bere balioek eta ekintzek, talde batzuekiko aurreiritziak edo arrazismoa islatu dezakeela. Beraz, balio hauek, ikasleekiko eta haien familiekiko harremanetan eragiten dutenez, hezitzaileek edozein kultura-, hizkuntza- edo etnia-talderekiko sentimendu negatiboak baztertu behar dituzte. Behin hezitzaileak aurreiritzi horiek gainditzeko gai direnean, ikasleekiko eta hien familiekiko, konfiantza eta onarpen giroa sortzen lagunduko dute, eta horrek, ikasleei, arrakasta izateko aukera gehiago emango dizkie (Richards, Brown eta Forde, 2007)

Dimentsio pertsonalaren beste alderdi garrantzitsu bat azterketa sakona egitea da. Funtsezkoa da hezitzaileek bere historia eta esperientzia pertsonalak aztertzea, baita ikasleen eta familien historia eta egungo esperientziak ere (Ndemanu eta Jordan, 2018). Ezagutzarekin, norberaren eta besteen ulermena dakar, hau da, irakasleek bere irakaskuntzan aurreiritzirik ez dutenean eta bere burua eta ikasleak ezagutzen direnean, hobeto erantzun diezaiekete ikasle guztien beharrei (Richards, Brown, Forde, 2007).

Dimentsio hezigarriak: Heziketa kulturalki harkorra izateko, heziketa-tresnak (liburuak, irakaskuntza-metodoak eta jarduerak) ikasleen kultura-esperientziekin bateratu behar dira (Irvine, 1992). Hau ematen ez bada, ikasle batzuetako, errendimendu apal bat eragin dezake; beste batzuentzako aldiz, eskola utzi dezakete. Kulturalki harkorra den pedagogiak ikasleen kultura eta hizkuntza ezagutu eta erabiltzen ditu irakaskuntzan, eta ikasleen nortasun pertsonala eta komunitarioa errespetatzen du (Richards, Brown, Forde, 2007).

### **2.1.1. Hezitzailearen eginkizuna**

Hezitzaileen eginkizunari dagokionez, hona hemen Gay (2002) eta Villegas eta Lucas (2002) autoreen arabera, kulturarekiko harkorra den hezitzaile bihurtzeko berariazko hainbat jarduera:

1. Hezitzaileek bere ekintza eta hurrekin ematen diren elkarreraginei buruz hausnartu behar dute eta bere portaerak zuzentzen dituzten motibazio pertsonalak hautematen saiatu behar dira. Horiek aldatzeko lehen urratsa, portaera jakin batzuk eragiten dituzten faktoreak ulertzea da.

2. Norberaren eta familiaren istorioak arakatu behar dituzte, hau da, irakasleek aztertu egin behar dituzte bere esperientzia goiztiarrak eta bere burua arrazaz edo arrazaz kanpoko izaki gisa ulertzen lagundu duten familia-gertaerak. Horretarako, hezitzaileek elkarrizketa informalak izan ditzazkete bere familiako kideekin, gizarte taldeei buruz dituzten sinesmen eta bizitzako hainbat esperientziei buruz. Beraz, hezitzaileak bere balioen eraketa historikoari buruz ikasten dutenean, harreman hobea izan dezakete beste gizabanako batzuekin.

3. Hezitzaileek gizarteko hainbat taldetako parte dela onartu behar dute, baita talde bakoitzekoa izateak dituen abantailak eta desabantailak ere. Ez hori bakarrik, baizik eta hezitzaileek ebaluatu eta onartu behar dute talde bateko kide izateak eragina duela harremanak izateko momentuan eta beste talde batzuk ikusteko moduan.

4. Garrantzitsua da hezitzaileek beste talde batzuen bizitza eta esperientziei buruz ikastea, esperientzia historikoen hainbat talderen jarrerak eta ikuspegiak nola moldatu dituzten ulertzeko. Gainera, beste talde batzuei buruz ikastea, hezitzaileak bere balioen eta beste talde batzuetakoen arteko desberdintasunak ikusten hasten dira.

5. Garrantzitsua da hezitzaileak ikasleen familiak eta komunitateak ezagutzea. Horrek, irakasleei ikasleekin harremanetan egoteko aukera ematen die, gizarte- eta kultura-sare konplexu batera konektatutako izaki sozial eta kultural gisa ulertuz. Gainera, irakasleek familiak eta komunitateak erabil ditzakete ikasleen hezkuntza-hazkunderari laguntzeko.

6. Garrantzitsua da aniztasunaren balorazioa garatzea. Gela desberdinetan eraginkorrak izateko, irakasleek aniztasuna aintzat hartu behar dute. Desberdintasuna gizartearen "arau" gisa hartu behar dute, eta talde bat bestea baino esanguratsuagoa edo garrantzitsuagoa delaren ideia baztertu. Horrek desberdintasunak errespetatzea eta ikuspegi horretatik irakasteko borondatea garatzea eskatzen du.

7. Garrantzitsua da erakundearen erreforman parte hartzea. Hezkuntza-sistemak, historikoki, eskola-biztanleriaren segmentu baten lorpenak sustatu ditu, kulturalki bideratutako arau eta balioak ezarriz. Eskolen balio mono-kulturalek ikasketa-planak eta prestakuntza-praktikak garatzeko joera sustatu dute, eta joera horiek kaltegarriak izan dira kultura- eta hizkuntza-jatorri desberdineko ikasleen errendimenduentzat. Beraz, irakasleek hezkuntza-sistemaren aldaketan parte hartu behar dute inklusiboa izan dadin.

Hezitzailearen eginkizunarekin jarraituz, hauek ikasgelan ingurune inklusiboagoa sortzeko, *Teaching in Education* (2019) bideoan adierazten den moduan, lehenik eta behin, bere ikasleak ezagutu behar dituzte, eta horrek esan nahi du bizitza pertsonalari buruz gehiago jakin behar dutela, bere alderdi akademiko indartsuak eta ahulak zeintzuk diren baino. Ondoren, itxaropen akademiko altua izan behar da ikasle guztiengan; izan ere, askotan, hezitzaileek uste dute Ingelesa bigarren hizkuntza bezala duten ikasleak, ikasteko gai ez direla bere hizkuntza-hesiagatik. Pentsamendu horrek mesede eskasa egiten die, beraz, ikasle horiek ingelesez hitz egiteko aukerak ematea garrantzitsua da, eta zenbat eta aukera gehiago eta praktika gehiago izan, orduan eta hobeto menderatuko dute. Ikasgaietan ikusizko elementuak txertatu, izan ere, komunikazioa desitxuratu egin daiteke kultura batzuen artean; hala ere, ikasgelan denak irudi berdina ikustean, ez dago nahasterik. Ikasgelan, ikasleen kulturari buruzko zerbait erakutsi behar da, horretarako, kultura anitzeko ikasketa-plan bat sartu behar da eta irakaskuntza-metodo eraginkorrenak nabarmendu behar dira. Irakasleek, ikasleen haien kulturari buruz eta bere buruaz hitz egiteko jarduerak edo ekintzak proposatu behar dizkie. Gainera, ikasleen gurasoekin harremanak eraiki behar dira. Eta azken estrategia, askotan alde batera uzten dena, ikasle guztien izenak ondo ahoskatzea, gaizki ahoskatzen badira, garrantzia falta adierazi dezakeelako.

Horren harira, elebakartasun paraleloarekin zerikusia duten hezkuntza-arazoen ondorioz, profesionalek eta ikertzaileek zalantzan jarri dute elebitasun bereziaren metodologia. Lin eta Martin (2005) ikerketa pedagogiko eta curriculum eleaniztun handiagoaren alde agertu dira. Lin eta Martinen (2005) eta Arthurren eta Martinen (2006) autoreen dokumentatutako ikerketek, kode-aldaketaren atzean dauden potentzial pedagogikoak deskribatzen dituzte. Horien artean, besteak beste, ikasleen inklusioa, parte-hartzea, parte-hartzaileen arteko harreman ez formalak garatzea, ideiak errazago transmititzea eta eskolei laguntzea daude. Beraz, Cummins-ek (2005) hizkuntzen arteko bi transferentzia-norabidetan esplizituki irakasten duten irakaskuntza-estrategia elebidunen beharra babestu zuen, hau da, translanguaging metodologiaren beharra.

Translanguaging, eskolako praktika gisa, mundu osoko akademikoek ezagutzen dute. Irakasleek, translanguaging metodologiaz baliatu dira, hitz eta kontzeptu giltzarriak testuinguruan kokatzeko, ikasleei kontzientzia metalinguistikoa garatzen laguntzeko, ikasleekin lotura sozio-emozionalak sortzeko eta ikasleek hizkuntza-hierarkiei eta -desberdintasunei aurre egiteko aukerak emateko (García, Flores eta Woodley, 2012; García eta Leiva, 2014; García eta Li Wei, 2014; Garrity, Aquino-Sterling eta Day, 2015; Gort eta Sembiante, 2015; Gort, 2015; Sayer, 2013). Esan daiteke, translanguaging pedagogiaren helburuak, justizia soziala eta aniztasuna sustatzearekin konbinatzen direla.

## **2.2. Translanguaging**

Cen Williams galesa izan zen lehena translanguaging hitza erabili zuena 1980ko hamarkadan, irakasgai berean bi hizkuntzen erabilera planifikatu eta sistematikoari erreferentzia egiteko. Definizio berriago eta eguneratuago batean, García (2009) honela definitzen du translanguaging-a: hiztun elebidunek bizi diren mundu elebiduna ulertzeko erabiltzen dituzten diskurtso-praktika askotarikoak. Beraz, prozesu horren bidez, ikasle elebidunek bere errepertorio linguistiko guztia erabiltzeko espazioa sortzen dute, eta irakasleek praktika pedagogiko legitimo hartzen dute (Garcia, 2009).

Hau da, Translanguaging ikasgeletan erabili ohi da, sortzen ari diren elebidunek behar duten beharrezko aldamiajea emateko (García, Johnson eta Seltzer, 2017; Ebe eta Woodley, García eta Kleyn, 2016).

Translanguaging terminoaren orokortze azkarra, ikuspegi akademikoaren eboluzioagatik ez ezik, elebitasunak dakarren gizarte-pertzepzio aldakorregatik ere gertatu da. Translanguaging-ren abiapuntua, hiztun elebidunek hizkuntza-errepertorio bakarra dutela da eta errepertorio horretatik estrategikoki hautatzen dituztela komunikazio eraginkorra lortzeko bidea ematen dieten elementuak. Translanguaging, beraz, ikasle elebidunek bere eskura jartzen dituzten baliabide ugariak erabiltzeko prozesua da (Lasagabaster eta García, 2014).

Translanguaging-a elebitasuna baliabide gisa hartzen duten praktika pedagogikoak sustatzen saiatzen da, arazotzat hartu beharrean. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-sistemak elebitasunaren ikuspegi tradizionala alde batera uztea, non ukipenean dauden hizkuntzak independenteak eta bereiziak diren bi entitate bihurtzen diren, harremanetan dauden hizkuntzen sinergieei balioa emango dien ikuspegi irekiagoa eta malguagoa lortzeko. Hala, translanguaging terminoa elebitasunaren ikusmolde tradizionaletik haratago doa, hizkuntza gutxitua eta hiztunen komunitatea ez daitezela banandu bilatzen baitu, eta irakaskuntza-hizkuntzak ez daitezela elkarren artean lehia gisa ikusi. Translanguaging-a hizkuntza nagusitik gutxiengora (Lewis, 2012) egin daiteke, edo gutxiengoan dagoen hizkuntzatik gehiengoaren hizkuntzara, helburua ama hizkuntza bigarren hizkuntzan gaitasuna garatzeko aldamiaje gisa erabiltzea denean.

Garcíak behin eta berriz adierazten du, hizkuntza gutxituak ez isolatzea funtsezkoa dela. Izan ere, babesaren eta isolamenduaren arteko aldea handia da. Gehiengoaren hizkuntza erabiltzen duten elebidunek, hizkuntza gutxituarenak diren ezaugarriak erakusten dituztela dioten bezala, hizkuntza gutxituaren erabilerak ere gehiengoaren hizkuntzaren arrastoak erakusten ditu. Hezitzaile elebidunek ere, hizkuntza-ideologia konplexuak erakusten dituzte, eta batzuetan, berezko hizkuntza ez-nagusiaren aniztasun edo aldaera akademikoen aldeko lehentasunak adierazten dituzte, tokiko komunitateen translanguaging-praktiken aurrean (Sánchez eta Quijada Cerecer, 2013). Beraz, hezitzaileek ulertzen ez badute ikasleak beti itzultzen ari direla, hau da, bere ama hizkuntza-errepertorioaren ezaugarri egokiak hautatzen ari direla bi hizkuntzen arteko erlazioa egiteko, ikasleen intseguritatea sustatuko dute. Translanguaging pedagogia bat gai da irakaskuntza elebidunaren helburu diren bi hizkuntzak garatzeko, hain zuzen ere, ikasleen bizitzaren parte direla ulertzen duelako, horizontalki (Vogel eta Garcia, 2017).

Beraz, hezitzaileek, translanguaging metodologia erabiltzen badute, eskolan ematen diren edukiak hobeto ulertzeko ez ezik, hizkuntza gutxituena gehiengoaren hizkuntzaren aurrean garatzen ere lagundu dezake (Lewis, 2012). Ez hori bakarrik, baizik eta translanguaging-a ikasgelatik haratago doan kontzeptu ideologikoa da (García eta Wei, 2014), elebitasunaren ikuspegia baitu, non parte hartzen duten hizkuntzek aldi berean jarduten dute, bai garunean, bai ikasgelan edo kalean, eta horrek aldaketa dakar elebitasunaren eta hezkuntza elebidunaren ikusmolde tradizionaletan. Hezkuntzaren ikuspegi holistikoa baten aurrean gaude, non hizkuntza guztiak garrantzia bera dute.

Aurretik aipatu bezala, ikasgelan, ikasleen artean dagoen kultur aniztasunari buruz hitz egitea eta ikastea garrantzitsua da, hori dela eta, kultura anitzeko ikasketa-plan bat satu behar da eta irakaskuntza-metodo eraginkorrenak nabarmendu behar dira. Gainera, translanguaging metodologiak adierazten duen moduan, bere ama hizkuntza eta atzerriko hizkuntzaren arteko zubia egitea garrantzitsua da. Hori dela eta, Total Physical Response Storytelling metodologia, haurrek atzerriko hizkuntza era dinamikoan lantzen duten bitartean, haibat kulturari buruz ikasteko baliagarria da.

### 2.3. Total Physical Response (TPR)

TPR Storytelling zer den aztertu aurretik, Erantzun Fisiko Osoa (TPR) zer den jakitea ezinbestekoa da: Erantzun Fisiko Osoa (TPR) James J. Asher doktoreak, Unibertsitateko Psikologiako irakasleak, garatutako metodoen multzoa da, hizkuntzak ikasteko eta irakasteko teknika eraginkorra garatzeko asmoz. Erantzun Fisiko Osoa (TPR) mugimendu fisikoa erabiltzen du hitzez adierazitako informazioa ezagutzeko. Aukera ematen die ikasleei hizkuntzari gehiegi pentsatu gabe erantzuteko, epe luzeko atxikipena errazten die eta ikasleen antsietatea eta estresa murrizten ditu. TPR eraginkortasunez aplikatzeko, saio erregularrak planifikatu behar dira, ordena logikoan aurrera egiteko eta zenbait printzipio kontuan hartzeko (Asher, 1977)

Helbling English (2012) kanaleko bideoan azaltzen den bezala, atzerriko hizkuntza bat Erantzun Fisiko Osoaren (TPR) bidez irakastea, haurrek lehen hizkuntza eskuratzeko duten moduaren antzekoa da, hau da, bere kabuz hitz egiten hasi aurretik, entzuten, behatzen eta imitatzen dute. Prozesu multi-sensorial honek, haurraren ikusmen-, entzumen- eta sinestesia-zentzumenak aldi berean aktibatzean gertatzen da. Prozesu multi-sentsoail horrek, haurrari atzerriko hizkuntza pixkanaka ulertzen laguntzen dio.

Asher-ren arabera (1977), giza garuna biologikoki programatuta dago elkarreraginekin edozein hizkuntza modu naturalean ikasteko. Prozesuan agerian geratzen da, haurrek hizkuntza barneratzen dutela ikusten dugunean, helduen eta haurren arteko komunikazioak hitz-trebetasunak eta gaitasun sinestesikoak konbinatzen ditu, haurrak fisikoki erantzuten die helduen hitzezko aginduei, eta haurraren erantzunak positiboki indartzen dituzte helduen ahotsak. Etapa horren ondoren, haurra gai da hizkuntza modu espontaneoan erreproduzitzeko; beraz, hitzak mugimenduekin eta keinuekin konbinatzen ditu, eta hizkuntza-gaitasuna lortzeko erraztasun handiagoa du. Mezuak barnertzeko prozesu hori sinestesiak lagundu dezake hitzak eta ekintzak lotzeko (Hounhanou, 2020).

Erantzun Fisiko Osoak (TPR) haurren garapen kognitiboa bultzatzen du; zentzumenak, irudimena eta sormena estimulatu baititu. TPRrekin, haurrek energia fisikoa eta mentala modu produktiboan erabiltzen dute, eta, gainera, hizkuntzaren garapena eta gizarte-trebetasunak errazten dituzte, hala nola lankidetzak, negoziatzea, gaitasuna eta arauen jarraipena. Izan ere, ikasleek hiztegia behar dute besteek uler ditzaketen esaldiak sortzen laguntzeko. Horregatik da oso garrantzitsua hiztegia menderatzea (Hounhanou, 2020). Harmer (2001), honela dio: "hizkuntza-egiturak hizkuntzaren eskeletoa badira, mihisea da bizi-organo horiek ematen duten hiztegia eta haragia". Horregatik, ikasleek beren hiztegia zabaldu behar dute besteekin komunikatzeko. Gainera, Aminudinek (2009) adierazi zuenez (Edge, 1993), "ikasleek zenbat eta hiztegi gehiago ikasi, orduan eta ideia gehiago izan beharko lukete, horrela, beren ideiak modu eraginkorragoan erabiliz komunikatzeko".

Aipatu bezala, egoera normalean dauden haur guztiek atzerriko hizkuntza batean jarduteko gaitasun mentala dute, baina beharrezkoa da ezaugarri gramatikalak, konbentzio fonetikoak, alfabetoa eta hiztegia garatzea (Lightbown eta Spada, 1999). Chomskyri (1959) zitatu zuten, honako hau adierazi zutenean: "Haurrak berez, hizkuntzarentzat programatuta daude, eta hizkuntza beste funtzio biologiko batzuk bezala garatzen da". Haurrek komunikazio-sistema sozialak eraikitzen dituzte, ikaskideekin jolastuz eta elkarreraginean, zenbait estrategia erabiliz, hala nola, barrea, gorpuz-hizkuntza eta ikasleen komunikazioa ahalbidetzen duten aurpegi-keinuak.

#### 2.3.1. Total Physical Response Storytelling

Aurretik esan bezala, Erantzun Fisiko Osoa (TPR) James Asherrek 1966an sortutako metodoa, antsietate txikiko eta zintestisiko handiko atmosferan, ikasleei, input ulergarria emateko diseinatuta dago. TPRrekin, ikasleei ez zaie eskatzen inolako diskurtsorik sortzeko, baizik eta entzuten duten

hizkuntza fisikoki irudikatuz, bere ulermena frogatzen dute. Gainera, ikasleek ez dute inolako estres emozionalik, sentituko hizkuntza berria eskuragarriagoa baita. Printzipio horiek berak nabariak dira TPR Storytelling metodoaren hedapenean.

TPR Storytelling, Blaine Rayk 1980ko hamarkadan TPR tradizionala zabaltzeko diseinatu zuen. Ray (2002) TPR tradizionalaren muga lexiko eta gramatikalez ohartu zen, eta narrazio-elementu bat sortu zuen. Irakasleak (edo beste ikasle batek) istorio bat kontatzen du, eta ikaskideek istorio horren dramatizazio bat sortzen dute, hau da, ipuin motor bat atzerriko hizkuntzan lantzen dute.

Ipuin motorrak irudimenezko agertoki batera eramaten gaituen argumentu sinplea duen narrazio laburrak dira, non pertsonaiak erronka eta abentura duen testuinguru batean moldatzen dira (Omeñaca, 2011). Ipuin motorra modu kolektiboan jolastutako eta antzeztutako ipuin bat da, non hezitzaile batek ipuin bat kontatzen duen eta beste partaide guztiak, aldi berean, protagonista baten ezaugarriak hartzen dituzte eta ipuinean gertatzen dena antzezten dute (Conde, 2001). Ipuin motorrak, argumentu sinple eta pertsonai multzo txiki batez osatuak daude (Omeñaca, 2009).

Ipuin motorraren ezaugarrietatik, beste askoren artean, honako hauek azpimarratu daitezke: ipuin antzeztuak haurren adierazpen-gaitasunari zuzenean eragiten dio, lehendabizi kognitiboki interpretatzen delako, eta gero mugimenduaren bidez. Ipuin antzeztua haurrentzako motibazio iturri bat da eta istorioak eta pertsonaiak aurkitzeko interesa pizten die (Conde, 2001). Era berean, Ipuin mota honek, jarduera fisiko eta mentala indartzen du, arlo kognitiboaren, sozialaren, afektiboaren eta motorraren garapena sustatuz (Pérez, Martínez eta Fernández, 2010).

Ipuin motorrak Haur Hezkuntzan duten garrantziari dagokionez, hauek haurrengan motibazio handia sortzen dute, protagonistak sentitzen baitira. Modu honetan, ekintzekin identifikatuak sentitzen dira (Iglesias, 2005). Hezkuntzan ipuin motorrekin lan egiteak garrantzi handia du, ekintza motorrak dimentsio kognitiboa, afektiboa eta soziala eraikitzen laguntzen baitu (Ruiz Omeñaca, 2011). Ipuin motorrekin lan egiteak ez du esan nahi soilik mugimen-gaitasunak lantzen direnik, baizik eta, irakaskuntza arlo guztietan globalizatu daitekeela, modu honetan haurren esperientziak aberatsagoak izanik. Beraz, ipuin motorrak, mugimenduaren eta irudikapenaren bidez, hurrek landu edo bereganatu nahi ditugun edukien ulermena indartzen dute (Serrabona, 2008).

Rayren arabera, metodo horrek hizkuntza bateko jarioasunera eraman dezake, metodoak ikaslearen lehenengo interesari heltzen baitio, hau da, "hitz egiteko eta ulertzeko gai izatea". Rayren ikuspegi pedagogikotik, ikasleek hizkuntza hitz egiteko eta ulertzeko gai izateko helburua lortzen dute, ez hizkuntzaren arauak esplizituki ulertzearen bidez, baizik eta hizkuntza-inputaren eraginpean jarriz eta hizkuntzaren arauen kontzientzia implizitua lortuz.

Garrantzitsua da haurrak ikasteko momentuan konfiantza garatzea eta seguru sentitzea. Gainera, ikasle oso gazteak ez direnez gauza abstraktuak ikasteko gai; inguruko egoerarekin zerikusia duten kontzeptu zehatzak behar dituzte. Bere ikaskuntza-estiloa zintestekoa da batez ere, eta, beraz, ikasteko ukitu, egin eta ikusi egin behar dute (Ormond, 2010; Widodo, 2005; Wright et al., 2007). Bera, hizkuntza ekintza eta erantzun fisikoen bidez lortzen da. Beraz, TPRk input ulergarria ematen die ikasleei, jarduera fisikoak sustatzen ditu eta gelan giro seguru eta bizigarria sortzen du (Li, 2013).

Total Physical Response Storytelling ematen diren urrats nagusi batzuk, ipuinak kontatzeko unean:

1. Esanahia ezartzea. Urrats honetan, ipuina irakurri aurretik, oinarrizko hiztegiko elementuak eta egiturak irakastea da, normalean piktogramen laguntzarekin. TPRSren helburua hitz eta egitura oinarrizkoenak irakastea denez, atzerriko hizkuntzako hitz ohikoenak eta egitura arruntenak aukeratzen dira. (Ray eta Seely, 2004).

2. Istorio bat galdetzea. Horixe da TPRSren urrats nagusia, narrazioa erabiltzen denean hiztegia eta xede-egiturak hainbat errepikapenen bidez irakasteko. Historiak aurrera egin ahala, maiz egiten dira sormenezko eta ulermenezko galderak ikasleei, ulertzen ari direla egiaztatzeko. Bai/ez, edo/eta... motako galderak egiten dira. Fase honetan, ikasleek historiaren sorreran parte hartzen dute; pertsonaiak izendatu, xehetasunak gehitu, aldaketak egin eta istorio paraleloak sor ditzakete. Ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte hartzen dute, aktiboak dira eta eroso sentitzen dira. Istorioaren dramatizazioan kontzentratuta daudenez, ikasleak ez dira konturatzen nola erabiltzen eta bereganatzen duten hizkuntza.

### 3. PROPOSAMEN PRAKTIKOA TEORIAN OINARRITUTA

#### 3.1. Curriculumarekin lotura:

Atal honetan, nire proposamen praktikoa aurrera eramateko, indarrean dagoen Haur Hezkuntzako curriculumeko 237/2015 dekretuan oinarrituz, proiektuan zehar landu daitezkeen oinarritzko konpetentziak eta bi esperientzia-eremuak finkatuko ditut. Ondoren, nire helburu didaktikoak zein edukiak sortu ahal izateko.

##### 3.1.1. Oinarritzko konpetentziak

Landu daitezkeen oinarritzko konpetentzien artean, oinarritzko zehar-konpetentziak eta oinarritzko konpetentzia espezifikokoak bereizten dira:

Oinarritzko konpetentzia espezifikoetatik, lehenik **Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia** landuko litzateke. Haurrek, bere sentimenduen eta emozioen adierazpen eta bizipenen bidez, harreman eta lotura eraikitzaileak ezartzen dituztelako beste pertsona batzuekin eta ingurunearekin. Hau da, entzuteko, azalpenak emateko eta elkarrizketan aritzeko ahalmenak lantzen dira, eta komunikazio-trukerako arau eta gizarte-ohiturak betetzen ikasten da. Gainera, etapa honetan, literaturaren adierazpen xumeenak gerturatuko dizkie literatura-hezkuntzak haurrei, bizipen gozagarriak izan ditzaten, literatura-testuak entzun eta moldatuz. Bigarrenik **konpetentzia motorra** landuko litzateke; haurrak, jarduera motor kontzientearen bidez, bere nortasun propioa eraikitzen duelako, bere gorputza ezagutzeko aukera ematen diolako eta hura adierazteko erabili dezakeelako. Horretaz gain, gorputz-egitura osatu, denbora-errealitatea bizi, eta kanpo-munduaz eta gainerako pertsonekin harmonian konpartitu behar duen espazioaz jabetuko da. Gorputz-adierazpenak, haurrari, kanpo-munduan bere nortasuna, ideiak eta emozioak adierazteko eta gainerako pertsonenak egokitasunez interpretatzeko eta balioesteko aukera emango dio. Horretarako, keinuak, mugimenduak, gorputz-jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabili beharko ditu (237/2015 dekretua).

Oinarritzko zehar-konpetentzietatik berriz, alde batetik, **hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia** landuko litzateke; izan ere, komunikaziorako egokiak eta eraginkorrak izateko, modu osagarrian erabili behar dira hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa. Konpetentzia honen bidez, haurrak pentsamendua eraikiko du eta gizabanakoaren eta ingurunearen arteko hartu-emanak bideratuko ditu. Bestetik, **ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia** landuko litzateke; haurrak, ipuinean azaltzen diren ideiak ekintza bihurtzeko gai izan daitezten. Horretarako, haurrari, ekimenerako aukera emango duen giro egoki bat eskaini behar zaio, jarduerak irekiak eta malguak izanik, eta denborak eta espazioak malgutasunez antolatuz. Konfiantzazko giro horrek, haurrei sormena eta berrikuntza lantzeko eta atzerriko hizkuntzarekin arriskuak hartzeko aukera emango die. Baita, ekimenak planifikatzeko eta kudeatzeko abilezia garatzeko ere. Helduek haurren interesak behatzean eta eguneroko bizitzan erabakiak hartzeko aukerak eskainiz, haurrek, ekimena eta autonomia landuko dute (237/2015 dekretua).

### 3.1.2 Esperientzia eremuak

Haur Hezkuntzako curriculumak bi esperientzia-eremutan antolatzen da, haurren garapen globala errazte aldera; nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua eta nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua. Proiektuan aurrera eramango dutan proposamen praktikoaren edukiak finkatzeko bi esperientzia eremuak erabiliko ditut. Izan ere, lehenengo eremuak, pertsona-nortasunaren gainean eta ingurune natural, fisiko eta sozialaren gainean gero eta ezagutza doituago bat eraikitze bidea adierazten duelako. Bide hori urratzeko, gorputz adierazpenaren eta TPR Storytelling-en bidez, haurrak, errealitatearen eta bere buruaren gaineko irudi konkretu bat osatuko duelako. Bigarren eremuan berriz, pertsonaren eta ingurunearen arteko komunikazioa eta interakzioak lantzen direlako.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuz, hauek izango lirateke landuko nituzken helburuak eta esperientzia-eremu bakoitzean jorratuko nituzken edukiak:

### 3.1.3. Helburu didaktikoak

- TPR Storytelling-en bidez, atzerriko hizkuntza lantzea, komunikaziorako, irudikapenerako, ikaskuntzarako eta gozamenerako tresna gisa erabi ahal izateko.
- Haurraren atzerriko hizkuntzaren ulermena garatzea, hitzez adierazten ari dena gorputzaren bidez interpretatuz, haren irudimenaren garapena sustatzeko eta bere gaitasun kognitibo eta sozialak eraikitze.
- Piktogramen erabileraren bidez, atzerriko hizkuntza eta bere ama hizkuntzaren arteko zubia egiteko gai izatea, hizkuntzen arteko loturak egin ahal izateko.
- Ipuinen dramatizazioaren bidez, haurrak egin beharreko adierazpenari eta mugimenduari buruzko erabakiak hartzea, beren burua eta bere ingurunea ezagutzeko.

### 3.1. Edukiak:

#### Eduki komunak:

- Atzerriko hizkuntzan idatzitak dauden ipuinak ezagutu eta gorputzaren bidez dramatizatzea.
- Pertsonen arteko komunikazioa eta talde harremana lantzea.
- Informazioa ulertzea, buruz ikastea eta hitzez eta gorputzaren bidez adieraztea.

#### Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremuko bigarren zikloko edukiak

- Bakoitzak bere gorputzaren egitura ezagutzea.
- Jolasa, disfrutatze eta harremanak izateko bitartekari gisa erabiltzea.
- Jolas sinbolikoaren bidez, egoera errealak edo irudizkoak eta pertsonaiak antzeztea.
- Konfiantza izatea norberaren ahalmenetan eta ekintzetan parte hartzea eta saiatzea.
- Norberaren ezaugarriak, ahalmenak eta mugak balioetsi eta onartzea
- Ekintzak egiteko ekimena izatea eta horiek gero eta autonomia handiagoz egitea.
- Gainerako pertsonen ezaugarriak onartzea, ezberdintasunak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea.
- Talde-lanetan elkar laguntzea
- Enpatiazko harremanak sortzea eta balioestea.



- Hurrek harreman orekatuak izatea elkarren artean, hau da, estereotipo eta aurreiritziak baztertzea.

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremuko bigarren zikloko edukiak:

- Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea eta literatura-testu errazen dramatizazioan parte hartzea. Hala nola, deskribapenak, kontakizunak eta ipuinak.
- Intonazioa, keinuak eta aurpegierak ezagutzea eta erabiltzea, komunikazioaren esanahia indartzeko.
- Ahozko hizkuntzaren bidez adierazi eta hizkuntza-adierazpenak egiteko interesa eta ekimena izatea.
- Atzerriko hizkuntzan dauden ipuinak arretaz entzutea, buruz ikastea eta hauek erabiltzeko interesa eta ekimena izatea.
- Dramatizazio eta imitaziozko jolasetan komunikatzeko, gorputza eta mugimenduak egokitzea.
- Zentzumenak esploratzea eta materialak eta tresnak erabiltzea (piktogramak).

**3.1.5. Ebaluazio irizpideak:**

Kontuan hartu behar da prozesu pedagogikoekin batera ebaluazio bat egitea garrantzitsua dela, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta aurrera eramandako proposamenarekin lortu nahi ziren helburuak lortu diren ala ez behatzeko, baita irakaslearen eta ikasleen zeregina ebaluatzeko ere.

Ebaluatzeko aurretik azaldutako helburu didaktikoetan oinarrituko nitzateke. Ikasleren batek zailtasun edo erraztasun bereziren bat badu saioan zehar proposatutako jardueraren bat egiteko, oharren atalean jasoko nuke, hurrengo saioetan kontuan hartzeko eta amaieran prozesuan zehar egindako garapena behatzeko.

Ebaluazio tresna ezberdinak daude, behaketa ebaluazio-tresna egokiena da Haur Hezkuntzan, esku-hartzeko aukera ematen duelako. Behatutakoa erregistratzeko moduari dagokionez, ebaluazio-taulak egitea erabakiko nuke.

Nire ebaluazio-irizpideak honako hauek izango lirateke:

- Haurrak atzerriko hizkuntza lantzea, komunikaziorako, irudikapenerako, ikaskuntzarako eta gozamenerako tresna gisa erabili ahal izateko.
- Haurrak atzerriko hizkuntzaren ulermena eta honen dramatizazioa garatzea, haren irudimenaren garapena sustatzeko eta bere gaitasun kognitibo eta sozialak eraikitzeke.
- Haurrak piktogramak interpretatzeko eta atzerriko hizkuntza eta bere ama hizkuntzaren arteko zubia egiteko gai izatea, hizkuntzen arteko loturak egin ahal izateko.
- Ipuinen dramatizazioaren bidez, haurrak egin beharreko adierazpenari eta mugimenduari buruzko erabakiak hartzea, beren burua eta bere ingurunea ezagutzeko.

### 3.1.6. Lorpen adierazleak

| Behaketa taula   | Bai | Zailtasunez | Ez | Oharrak |
|--|-----|-------------|----|---------|
| Atzerriko hizkuntza erabiltzen du.   |     |             |    |         |
| Atzerriko hizkuntza eta bere ama hizkuntzaren artean zubia egiteko gai da. |     |             |    |         |
| Erabaki propioak hartzeko gai da.  |     |             |    |         |
| Bere gorputza ezagutzen du.  |     |             |    |         |
| Gorputza komunikabide gisa erabiltzen du.                                  |     |             |    |         |
| Sormena garatzen du.   |     |             |    |         |
| Hitzez esandakoa interpretatzeko gai da.                                   |     |             |    |         |
| Hitzez esandakoa gorputzaren bidez adierazteko gai da.                     |     |             |    |         |
| Piktogramak interpretatzeko gai da   |     |             |    |         |
| Ekintzetan parte-hartzen du.   |     |             |    |         |
| Protagonistaren paperean sartzen da.                                       |     |             |    |         |
| Taldearen erritmoa jarraituko du.  |     |             |    |         |

### 3.2. Metodologia

Aurrera eramango dudana proiektua Haur Hezkuntzako bigarren zikloko haurrei zuzenduta egongo litzateke, 5-6 urteko haurrentzat hain zuzen ere. Guztira, 24 ikasle egongo lirateke, 14 neska eta 10 mutil eta ez da hezkuntza premia berezirik jasotzen duen ikaslerik egongo.

Praktikak, psikomotrizitate gelan edo gela arruntan gauzatuko nituzke, aste bakoitzean ipuin bat eramango nuke aurrera eta guztira lau ipuin ezberdin landuko nituzke. Hauek lantzeko, Total Physical Response Storytelling metodologia erabiliko nuke, hau da, piktogramak, errepikapenak, memoria eta gorputz-hizkuntza erabiliko nituzke. Ipuina erabakitzeko momentuan, garrantzitsua izango da landuko diren ipuin guztiak kulturalki harkorrak izatea, eta hauen bitartez hurrek gelako eta munduko hainbat kultura ezagutzeko gai izatea. Horretarako kulturartekotasuna ala inklusioaren gaia jorratzen duten liburuak erabakiko nituzke edo baita ere, erabiliko diren piktogrametan hainbat etnia ezberdinetako pertsonaiak sartzen saiatuko nintzateke, bereziki gelan aurkitu daitezkeenak. Bestalde, translanguaging metodologia erabiliko nuke, hurrek bere ama hizkuntza baztertu ez dezaten eta honi esker, atzerriko hizkuntzarako zubia egin dezaten.

Astean zehar hiru saio eskainiko nizkioke ipuin bakoitzari eta saio bakoitza hiru zati nagusietan banatuko nuke: animazio fasea, jardueren garapena eta lasaitasunera itzultzeko fasea. Aipatu beharra dago saioetan zehar, tarteka geldi uneak egitea komenigarria izango litzatekeela, umeen proposamenak entzuteko eta horiek aurrera eraman ahal izateko.

Lehenengo saioan, hasteko animazio faseari dagokionez, haurren arreta erakartzeko eta saioa hasiko dela adierazteko, bere ama hizkuntzan den esaldi bat erabiliko nuke. Jardueren garapenari dagokionez, hezitzaileak, haurrek ipuin osoa landu aurretik, ezagutu behar dituzten hainbat hitz gako aurkeztu eta azaldu beharko litzuzke, piktogramekin batera. Hitzak identifikatu ondoren, haurrei bere ama hizkuntzan hitz gako hori nola esango litzateke galdetzea komenigarria izango litzateke, horrela bere ama hizkuntzarekin zubia eraikiz eta beraz, translanguaging metodologia erabiliz. Behin hitz-gakoak ikasi dituztela, hezitzaileak hitz-gako horiekin eraikitako esaldiak erakutsiko lizkieke, hauekin batera ekintza bat eginez. Horrela, haurrek jarraibidea entzun eta ekintza imitatu beharko lukete, horrela TPR Storytelling metodologia erabiliz. Garrantzitsua da hezitzaileak irakaskuntza-erritmoa ikasleen ikaskuntza-erritmora egokitzea eta esaldiak pixkanaka sartzen joatea, ez denak batera eta hauen ordena mantentzea. Gainera, beste esaldi bat sartu baino lehen, aurretik esandako esaldiak errepikatzea komenigarria izango litzateke. Azkenik, lasaitasunera bueltatzeko faseari dagokionez, haurrak lurrian etzatea eta eta hauei atzerriko hizkuntzan dagoen edo soilik melodia bat den abesti lasai bat jartzea komenigarria izango litzateke.

Bigarren saioan, animazio faseari dagokionez, saioari hasiera emateko, aurreko saioan erabilitako esaldi berdina erabiliko nuke baina kasu honetan, ama hizkuntza eta atzerriko hizkuntzaren arteko zubia egingo nuke (translanguaging) esaldi bera bi hizkuntzatan esanez. Garapen faseari dagokionez, hezitzaileak lehenengo saioan emandako orden berdinean esango litzuzke landutako esaldiak, baina oraingoan ez lieke ikasleei ekintzen eredu bat emango, beraz, ikasleek esaldiak entzun eta esaldi bakoitzari dagokion ekintza gauzatu beharko lukete, inongo eredurik gabe. Horrela haurrek memoria landuz, hala ere, haurrek ez balute aurreko saioan egindakoa gogoratzen, hezitzaileak esaldiekin egin beharreko ekintzak gogoratu lizkieke. Behin ikasleak ekintzak eredurik gabe erraz egiteko gai direnean, berriro ere emandako jarraibideak entzun eta ekintzen bidez antzestu beharko litzuzkete, baina oraingoan, hezitzaileak jarraibideen ordena aldatuz. Azkenik, lasaitasunera bueltatzeko fasean, aurreko saioan bezala, haurrak lurrian etzatea eta eta hauei atzerriko hizkuntzan dagoen edo soilik, hainbat kulturetako soinu tradizionalekin egindakoa melodia bat den abesti lasai bat jartzea komenigarria izango litzateke.

Hirugarren saioan, animazio faseari dagokionez, haurren arreta erakartzeko, bigarren saioan atzerriko hizkuntzan ikasitako esaldia erabiltzea egokia izango litzateke, saioetan zehar ama hizkuntzatik atzerriko hizkuntzara emandako eboluzioa ikusteko. Garapen faseari dagokionez, lehenengo haurrek istorio osoa entzungo lukete eta ondoren, istorioan agertzen diren landutako hitz gakoak, ekintzen bidez dramatizatu egin beharko litzuzkete. Horrela, astean zehar ikasi berri dituzten esaldiak testuinguru batean landuz eta ondo ulertu dituztela adieraziz. Saioarekin amaitzeko, lasaitasunera bueltatzeko fasean, aurreko bi saioetan bezala, haurrak lurrian etzatea eta eta hauei atzerriko hizkuntzan dagoen edo soilik melodia bat den abesti lasai bat jartzea komenigarria izango litzateke.

Azkenik, aste bakoitzaren amaieran, garrantzitsua izango litzateke ikasle guztiekin hausnarketa bat egitea; istorioan zehar bizi izan dituzten sententzioak adierazteko, gehien eta gutxien gustatu zaiena partekatzeko eta abar. Gainera, modu honetan, beraien esperientzia partekatzen hari diren bitartean, atzerriko hizkuntza eguneroko testuinguru batean eta modu natural batean landuko lukete.

Aipatu beharra dago, ipuina praktikan jarri aurretik, hezitzaileak eta haurrek ipuina ezagutu eta alde aurretik irakurrita izatea asko lagunduko lukeela, ondorengo dinamika ez oztopatzeko. Hezitzailea ere, praktikaren parte izango litzateke, gehien bat, beharrezkoa izango den materiala (piktogramak) eta espazioa prestatuz eta denbora kudeatuz.

Saioaren iraupenari dagokionez, ipuinaren luzeraren arabera eta haurren beharren arabera izango litzateke, hau da, saio bakoitzeko denboraren kudeaketa malgua izan daiteke, testuinguruari egokituz. Hala ere, saioa bakoitzak 30 minutu inguru iraungo duela estimatu daiteke.

### 3.3. Praktikaren deskribapena

#### 3.3.1. Lehenengo ipuina: Four Little Corners

##### Lehenengo saioa:

##### Animazio fasea:

Lehenengo saioari hasiera emateko eta haurren arreta erakartzeko, hurrek biribil batean eseri eta saioa hasiera doala adierazteko, haurren ama hizkuntzan dagoen *“Tik, tak, tik, tak saioa hasteko ordua da, begiak zabalik, belarriak garbi, ahoa prest eta ipurdia eserita”* esaldia abestu dezakete.

##### Jardueren garapena:

Jarraian, hezitzaileak, hurrek ipuin osoa landu aurretik, ezagutu behar dituzten hainbat hitz gako edo preposizioen arabera esanahia aldatzen duten aditzak aurkeztu eta azaldu beharko lituzke, piktogramekin batera. Azken hauek, ingelesa ikaskuntzaren atalik zailenetako bat dira, hori dela eta, metodologia eta irakaskuntza erritmo hau egokia da hurrek era naturalean barneratzen joan ahal izateko. Hitzak identifikatu ondoren, hurrei bere ama hizkuntzan hitz gako hori nola esango litzateke galdetzea komenigarria izango litzateke, horrela bere ama hizkuntzarekin zubia eraikiz eta beraz, translanguaging metodologia erabiliz. Kasu honetan landuko diren hitz gakoak honako hauek izango dira: Square, play, to go into, sad, twists, turns upside down, cut out, corners, gather, talk, cut out, enter. Aipatu bezala, hauek piktogramen bidez ikasiko dituzte, hau da, hitz edo aditz bakoitzari piktograma bat esleituz.

Behin hitz-gakoak ikasi dituztela, hezitzaileak hitz-gako horiekin eraikitako esaldiak erakutsiko lizkieke, hauekin batera ekintza bat eginez. Horrela, hurrek jarraibidea entzun eta ekintza imitatu beharko lukete, horrela TPR Storytelling metodologia erabiliz.

|                                |  |
|--------------------------------|--|
| <u>Play</u> with his friends   | Lagunekin jolastearen ekintza egin   |
| <u>Go into</u> the house       | Espaziotik ibili, bi hurrek eskuekin zirkulu bat osatu eta jarraian haurrak banan-bana eskuen artetik sartu, ate bat balitz bezala |
| He is <u>sad</u>               | Negar egitearen ekintza eta aurpegi keinua egin  |
| <u>Stretch your</u> body       | Gorputza luzatu, besoak goruntz luzatuz  |
| <u>Twists</u> your body        | Bere buruaren gainean bueltak eman   |
| <u>Turn upside down</u>        | Burua jaitsi, buruz bera baleude bezala  |
| <u>Cut out</u> the corners     | Eskuekin goraizak irudikatu eta moztearen ekintza egin   |
| <u>Gather</u> in the big room. | Denen artean korro estu bat osatu  |
| <u>Talk</u> for a long time.   | Hitz egitearen ekintza egin, ahoa mugituz  |
| <u>Enter</u> the big house     | Atea irekiko balute bezala egin eta pausu handi bat aurrera egin   |

